

## **UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2023) I. ETA II. MODALITATEAK**

### **Onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

#### **UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2023**

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen errektoreordetzaren webgunean, zerrendan bertan adierazita zeintzuk ziren zuzendu beharreko eskaerak. I. eta II. Modalitateetan onartutako merezimenduen behin-behineko zerrenda ere argitaratu zen. Zerrenda hau eskaerak aurkezteko fasean erregistratutako merezimenduak berrikustetik prestatu zen.

Zuzenketak egiteko epea amaitu ondoren, IAek ERABAKI DU onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

#### **Helegiteak:**

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2023ko azaroaren 27an